



HEZKUNTZA SAILEKO ARAUBIDE JURIDIKOAREN ETA ZERBITZUEN ZUZENDARITZAK EMANDAKO TXOSTENA, EUNEIZ EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UNIBERTSITATE PRIVATU GISA EZAGUTZEKO LEGE PROIEKTUARI BURUZKOA.

Lege-proiektu honek "EUSTEIZ 2018, S.A. " Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate pribatu gisa, "EUNEIZ Unibertsitatea " izenarekin, ezagutzea du helburu. Unibertsitate horrek presentziazko unibertsitate-irakaskuntza eskainiko du eta, goi hezkuntzako instituzioa den aldetik, dagozkion gainontzeko funtzioak ere beteko ditu, ikaskuntza eta ikerketaren bidez.

I.- EGITEKO PROZEDURA

Abenduaren 22ko 8/2003 legeak, xedapen orokorrak egiteko prozedurarenak, xedatutakoaren arabera, Hezkuntza sailburuaren 2020ko otsailaren 13ko aginduaren bidez hasiera eman zitzaien EUNEIZ unibertsitate pribatua ezagutzeko lege-proiektua gauzatzeko prozedurari.

Geroago, eta Hezkuntza sailburuaren 2020ko uztailaren 13ko aginduaren bidez, aldez aurretik onartu zen aipatutako lege-proiektuaren testua. *Abenduaren 22ko 8/2003 legeak* 7.3. artikuluan xedatutakoaren arabera, prozeduraren instrukzioa egin duen Saileko Zerbitzu Juridikoak egin behar du testu horri buruzko txostena. Apirilaren 11ko 79/2017 dekretuak, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituenak, 12 b) artikuluan xedatutakoaren arabera, funtzio hori Sail honetako Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen Zuzendaritzari dagokio.

Halaber, eta urriaren 1eko 39/2015 legeak, Administrazio Publikoetako Administrazio Prozedura Erkidearenak, 133.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, aldez aurreko kontsulta bat, Hezkuntza sailburuaren aginduaren bidez, egin behar da aipatutako proiektua gauzatzeko, baina tramite hori egin behar den aldez aurreko kontsulta hori ez da espedientean jasota agertzen.

Azaroaren 24ko 9/2004 legea, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarenak, 3.1.d) artikuluan xedatutakoaren arabera, organo horrek eman behar du derrigorrean txostena.

Herri Administrazioetan Hizkuntza Normaltzeko Zuzendaritzak derrigorrean eman behar du txostena, apirilaren 11ko 82/2017 dekretuak, Kultura eta Hizkuntza Politikarako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituenak, 14.2.l) artikuluan xedatutakoaren arabera eta azaroaren 6ko 233/2012 dekretuak, izaera orokorreko xedapenak egiteko prozeduran euskara normaltasunez erabiltzearen ikuspegitik inklusioaren erregimena ezartzen duenak, xedatzen duenari begira.

Hau adierazi behar dugu: lege-proiektu bat denez, eta 4/2005 legeak 21. artikuluan xedatutakoaren arabera, Emakundek eman behar du derrigorrean txostena eta, halaber, lege-proiektu horrek generoaren arabera izango duen eraginari buruzko



txostena egin behar da, generoaren araberako eragina aldez aurretik ebaluatzeko otsailaren 14ko 5/2007 ebazpenaren bidez onartu ziren argibideetako lehenak 2. puntuan zehazten duenez.

Bestalde, eta ekainaren 28ko 16/2012 legeak, pertsona ekintzaileei eta Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa txikiari laguntzearenak, 6. artikuluan xedatutakoaren arabera, enpresaren eraginari buruzko txosten bat egin beharko da, EAEk eragindako edozein arau baino lehenago.

Halaber, Unibertsitate Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseiluak eman behar du txostena, azaroaren 17ko 314/1998 dekretuak, Unibertsitate Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseilua eta Euskadiko Unibertsitate Kontseiluaren txostena arautzen dituenak, 3. artikuluan, azaroaren 20ko 204/2007 dekretuak, Euskadiko Unibertsitate Kontseilua arautzen duenak, 2. artikuluan eta Estatuko Unibertsitate Politikaren Konferentzia Orokorraren txostenak xedatutakoaren arabera.

Bestalde, Unibasq-ren txostena ere behar da, ekainaren 28ko 13/2012 legeak, euskal unibertsitate-sistemaren kalitatea eta egiaztatzea ebaluatzeko Unibasq Agentziarenak, 3. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Halaber, urriaren 31ko 464/1995 dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren esparruan barne kontrol ekonomikoa eta kontabilitatea gauzatzeko dituenak, III. kapituluaren hirugarren atalean xedatutakoaren arabera, Kontrol Ekonomikorako Bulegoak eman behar du derrigorrean txostena.

Proiektua sustatzen duen Zuzendaritzak memoria bat aurkeztu du, baina ez du helburuari eta proiektatutako erregulazioaren arrazoiei buruzko behar adina informaziorik eskaintzen; izan ere, puntu orokorrak aipatzen ditu baina ez ditu proiektatutako erregulazioaren funtsezko eduki konkretuak zehazten. Hau gogorarazi behar dugu: abenduaren 22ko 8/2003 legeak, izaera orokorreko xedapenak egiteko prozedurarenak, zehaztutakoaren arabera, - beste lege sektorial batzuek osatzen dute, - arau-proposamenekin batera hiru memoria mota aurkeztu behar dira: proiektuaren premia eta egokitasunari buruzko memoria (justifikazio-memoria deitzen zaiona), aurrekariak, praktikatutako tramiteak eta beraien emaitza aipatuko dituenak; memoria ekonomikoa, arau berriak eragingo duen kostua kalkulatu duena, eta generoaren araberako eraginari buruzko memoria edo txostena.

Ildo horretan, lege mailako izaera orokorreko xedapenak tramitzeko ereduari adierazten denez, *egokitasun juridikoari buruzko edukiak eta izaera orokorreko xedapenak onartzeko eskatzen diren gainontzeko puntuak agertu beharko ditu memoriak; hots, proiektu bat egin eta onartzeko orduan, arauak hartzaileentzat eta eragileentzat izango duen eragina baloratzeko behar den informazioa izatea bermatu beharko du memoriak.*

II.- ESKUDUNTZA.

Lege honek "EUNEIZ Unibertsitatea" unibertsitate pribatu gisa ezagutzen du. "EUNEIZ Unibertsitateak" goi hezkuntza bat eskainiko du eta teknologia berrietako arloak eta Kirol eta Osasun Zientziak integratuko ditu. Teknologia berrien eta ekonomia



digitalaren eremua entretenimenduaren, bideo jokoan eta joko aplikatuen industriari bideratuta egongo da. Osasun Zientzien eremuak kirol-zuzendaritzaren eta berrogokitzearen eremuekin du, batez ere, zerikusia.

Abenduaren 18ko 3/1979 lege organikoak, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuarenak, 16. artikuluan xedatutakoaren arabera eta Konstituzioak lehen xedapen gehigarrian zehaztutakoa betez, Euskal Autonomia Erkidegoak du irakaskuntza guztiaren, maila, gradu, modalitate eta espezialitate guztietan, eskuduntza, Konstituzioaren 27. artikuluan eta berori garatzen duten lege organikoetan xedatutakoaren, Konstituzioaren 149.1.30. artikulua Estatuari ematen dizkion ahalmenen eta Konstituzioa bete eta bermatzeko beharrezkoa den Goi Ikuskaritzak xedatzen duenaren kalterik gabe.

Proiektuaren atarikoak oinarria ematen dioten funtsezko eskuduntzak eta edukia baldintzatzen duten legezko aurreikuspenak jasota uzten ditu. Horiek horrela, otsailaren 25eko 3/2004 legeak, euskal unibertsitate sistemarenak, euskal unibertsitate sistema bat definitzen du eta, sistema horren arabera, integratzaile guztiek, titularitate publikokoak edo ez publikokoak izan, euskal gizartearen garapen ekonomiko, zientifiko eta kulturalaren, haren kohesioaren eta herritarren ongizatearen alde egiten dute lan, gizarte zuzenago eta solidariago bat lortze aldera. Halaber, euskal unibertsitate-sisteman integratuta dauden unibertsitateek balore demokratikoetan, justizia sozialean eta giza eskubideekiko errespetuan oinarritutako hezkuntza sustatu beharko dutela agertzen du lege horrek; halaber, ohiko irakaskuntzaren ekimen osagarriak bultzatu eta lagundu beharko dituzte, ekimen horiek giza duintasunean eta herri eta kultura guztien arteko elkartasunean oinarritutako baloreak transmititzea baldin badakarte. Gainera, euskal unibertsitate sistemako unibertsitateek euskal kultur ondarearen, oro har, eta euskararen, bereziki, defentsa, ikerketa eta sustapena bultzatuko dutela zehazten da. Era berean, euskal unibertsitate sistema osoaren kalitatea hobetzea ekarriko duten eskubide eta exijentziak ezartzen ditu publikoak ez diren unibertsitateentzat legeak.

Lege horrek 61. artikuluan IV. tituluan ere xedatzen duenez, Eusko Legebiltzarrak du era eskusiboan unibertsitate pribatuak ezaqutzeko eta, behar izanez gero, ezaqutza hori bertan behera uzteko eskuduntza.

Halaber, otsailaren 25eko 3/2004 legeak, euskal unibertsitate sistemarenak, 108. artikuluan VIII. tituluan xedatzen duenez, edozein pertsona fisikok edo juridikok izango du publikoak ez diren unibertsitateak ezaqutzeko prozesua sustatzeko ahalmena, unibertsitatei buruzko oinarritzko legerian ezarritakoak ez diren beste muga edo debekuak izan gabe.

Lege hori onartu zenetik, euskal unibertsitate sistema artikulatzeko eta kohesionatzeko prozesua sustatu du, bere unibertsitate-politikaren bidez, Eusko Jaurlaritzak, unibertsitate-sistema integratzen duten unibertsitate guztiei zuzendutako garatzeko helburuak definitzearen bidez.

Abenduaren 21eko 6/2001 lege organikoak, Unibertsitateenak, apirilaren 12ko 4/2007 lege organikoaren bidez aldatuak, era zehatzean, eta konstituzionalki aitortuta dagoen zentroak libreki sortzeko printzipioa errespetatuz, erregulatzen ditu unibertsitate publiko eta pribatuen ezaqutza, funtzionamendu eta erregimen juridikorako baldintzei buruzko alderdi nagusiak.

Abenduaren 21eko 6/2001 lege organikoak, Unibertsitateenak, unibertsitate publikoei dagoeneko egin zaizkien exijentziak egiten dizkie unibertsitate pribatuei. 4.



artikuluaren I. tituluan xedatzen duenez, kokatu beharko diren lurralde eremuko batzar legegilearen lege batek eman beharko die pribatuaren izaera unibertsitateei. Maiatzaren 29ko 420/2015 errege dekretuak, unibertsitateak eta unibertsitate-zentroak ezagutu, baimendu eta egiaztatzeari buruzkoak, agindu hori garatzen du eta, besteak beste, zentroyen kopurua eta unibertsitate pribatuek, ezagutuak izateko, izan beharko duten zentroyen kopurua, exijentzia materialak eta beharko duten gutxienezko pertsonala ezartzen ditu.

Bestalde, arau honen mailak Unibertsitateen lege organikoak 4. artikuluan adierazitakoari ematen dio erantzuna; 4. artikulua horren arabera, unibertsitate pribatua kokatuko den lurralde eremuko batzar legegileak emandako lege baten bidez gauzatu da unibertsitate pribatu hori ezagutzeko prozesua. Horregatik, ez da legeriak ezarritakotik haratago joaten eta proportzionaltasunaren printzipioa betetzen du.

III.- EDUKIA

Arau horien arabera, titularitate pribatuko unibertsitateak libreki sortzeko eskubide konstituzionalaz baliatu nahi duen EUSTEIZ 2018, S.A.-k indarreko legeriak eskatzen duen espedientea aurkeztu du Hezkuntza Sailean eta EUNEIZ Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde eremuan ezarriko den eta presentziazko irakaskuntzak emango dituen unibertsitate pribatu gisa ezagutzeko eskaera egin du.

Xedapen horien babesean "EUNEIZ Unibertsitatea " zentroa eratzeko, aplikatzeko moduko legeriak exijitzen dituen baldintzak betetzen dituela egiaztatu du erakunde sustatzaileak, baldintza horien gauzatzea jarduerak hasteko baimena eman aurretik exijituko den arren. Bereziki, abenduaren 21eko 6/2001 lege organikoak 5. artikuluan ezartzen dituen debekuetakoren bat berean ere ez daudela egiaztatu da espedientean. "EUNEIZ Unibertsitateak " bere gain hartzen du unibertsitate pribatuei aplikatu beharreko ordenamendu juridikoak ezartzen dituen eginbehar guztiak betetzeko konpromisoa.

Abenduaren 21eko 6/2001 lege organikoak, Unibertsitateenak, eta maiatzaren 29ko 420/2015 errege dekretuak, unibertsitateak eta unibertsitate-zentroak sortu, ezagutu, baimendu eta egiaztatzeari buruzkoak, xedatutakoaren arabera, espedientea tramitatzeko eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa ondorengoa dela gogorarazi behar dugu:

1. Prozedurari hasiera emateko izendatutako ordezkariaren kreditazioa:

Organo eskudunak emango duen ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da puntu hau, erakunde sustatzailearen estatutuetan ezarritakoaren arabera.

2. Sustatzaileen nortasun juridikoa egiaztatzea:

Nortasun juridikoa egiaztatzeko, organo eskudunaren (Merkataritza Erregistroa, Fundazioen, Elkartearen Erregistroa, edo behar dena, erakundearen izaera judikoaren arabera) ziurtagiria aurkeztuko da. Ziurtagiri horretan erakunde horien izen soziala, helbide soziala, ordezkaria, helburu soziala eta kapitala adieraziko dira, baita identifikatzeko beharrezkotzat jotzen den beste edozein datu ere.

3. Unibertsitatearen nortasun juridikoa egiaztatzea:



Beren nortasun juridikoa dutela egiaztatu beharko dute unibertsitate pribatuek, Unibertsitateen lege organikoak 2.1. artikuluan eta 420/2015 errege dekretuak III. eranskinean xedatutakoaren arabera.

Organo eskudunaren (Mekataritza Erregistroa, Fundazioen, Elkarteen Erregistroa edo behar dena, erakundearen izaera juridikoaren arabera) ziurtagiria aurkeztuko da. Ziurtagiri horretan erakunde horien izen soziala, ordezkaria, hleburu soziala eta kapitala adieraziko dira, baita identifikatzeko beharrezkotzat jotzen den beste edozein datu ere.

Unibertsitateari nortasun juridikoa emango dion erakundearen helburu soziala: Unibertsitateen lege organikoak 2. artikuluan xedatutakoaren arabera, goi hezkuntza izango da Unibertsitateari nortasun juridikoa emango dion erakundearen **helburu sozial bakarra**, 1. artikuluan 2. atalean aipatzen diren funtzioak betez.

4. Unibertsitateen lege organikoak 5. artikuluan ezartzen dituen debekuetako bat berean ere sartuta ez dagoela egiaztatzeko deklarazioa:

Hezkuntza-administrazio batean zerbitzuak ematen dituztenek, dolozko delituengatik zigor-aurrekariak dituztenek edo, hezkuntzaren arloan edo arlo profesionalean egindako arau-hauste larriarengatik, administrazio-zigor irmoa jaso dutenek ezin izango dituzte unibertsitateak sortu.

Debeku horretan ondorengo pertsonak sartuta daudela interpretatuko da: pertsona juridikoak, haien administratzaileak, ordezkariak edo zuzendaritza-karguak aurreko paragrafoan adierazitako zirkunstantzietakoren batean badaude, edo haien fundatzaileak, sustatzaileak edo kapitalaren % 20 edo gehiago duten pertsonak aurreko paragrafoan adierazten diren zirkunstantzietakoren batean badaude.

Horregatik, ez da lege-proiektu horren atarikoak ulertzen, “EUNEIZ Unibertsitatearen “ helburu sozialak goi graduak irakaskuntza, masterra eta gradu-ondokoak, goi mailakoak ez diren prestakuntza eta hobekuntza profesionaleko irakaskuntzak, unibertsitate-orientazioa, lanbide heziketa eta lanbide heziketako erdi eta goi mailako heziketa-zikloak eta mota guztietako etengabeko prestakuntza direla zehazten duelako. Unibertsitateaz ari bagara, unibertsitate-prestakuntza bakarrik eman beharko lukete.

Edukiari dagokionez, lege-proiektu honek “EUNEIZ Unibertsitatea “ unibertsitate pribatua ezagutzen du eta, oro har, ondorengoak bezalako alderdiak arautzen ditu: unibertsitatearen egitura, jardueri hasiera emateko Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuari espresuki baimena eskatu behar izatea, ikasleak sartzeko baldintzak, funtzionatzen egon beharreko gutxienezko epea, bermeak ezartzeko edo ikuskatzeak egiteko administrazio autonomikoaren ahalmena, unibertsitateak indarreko legeriak ezartzen dituen baldintzak edo, ezagutua izateko, hartu dituen konpromisoak beteko dituela segurtatzeko.

Aplikazio-eremurako, urriaren 1eko 39/2015 legeak, Administrazio Publikoetako Administrazio Prozedura Erkidearenak, 129. artikuluan agertutako printzipio gidarietara egokitzen da eta, printzipio horien arabera, helburuak ezartzen ditu.

Horren arabera, eta unibertsitatearen sustatzaileek aurkeztutako memoria ikusita,- memoria horretan jasota agertzen dira otsailaren 25eko 3/2004 legeak, euskal unibertsitate-sistemarenak, abenduaren 21eko 6/2001 lege organikoak,



Unibertsitateenak, eta maiatzaren 29ko 420/2015 errege dekretuak, unibertsitateak eta unibertsitate-zentroak sortu, ezagutu eta egiaztatzeari buruzkoak, eta indarrean dagoen gainontzeko legeriak ezarritako baldintzak betetzeko konpromisoak,- eta, unibertsitatearen jarduerak hasi aurretik, jarduera horiek behar bezala gauzatuko direla bermatzeko irakaskuntza-bitartekoak eta bitarteko materialak dituela, baita titulu ofizialak egiaztatuko dituela ere, kontuan hartuta, araudi honek du goi irakaskuntzaren zerbitzua emateko ezinbestekoa den erregulazioa eta, horren arabera, hezkuntzaren eta ikerketaren kalitatea bermatuko dira.

Lege-proiektua horrela egituratuko da: zioen adierazpena, bederatzi artikulua, bi xedapen gehigarri, bi azken xedapen.

- 1.artikulua.- Unibertsitatearen ezagutza.
- 2.artikulua.- Egitura.
3. artikulua.- Unibertsitatea funtzionamenduan jartzeko baimena.
4. artikulua.- Sartzeko baldintzak.
5. artikulua.- Unibertsitateak eta bere zentroek funtzionatzeko epea.
6. artikulua.- Bermeak.
7. artikulua.- Ikuskatzea.
8. artikulua.- Titularitatea transmititzea edo beste bati pasatzea.
9. artikulua.- Jardueren memoria.

Lehen xedapen gehigarria.- Gizon eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna.

Bigarren xedapen gehigarria.- Euskal kultur ondarea eta euskara.

Azken xedapen lehena.- Garapena.

Azken xedapen bigarrena.- Indarrean sartzea.

Arau-teknikari dagokionez, hau adierazi behar dugu: lege-proiektuak, dekretuak, aginduak eta ebazpenak egiteko argibideen arabera da lege-proiektua, abenduaren 2ko 8/2003 legeak xedatutakoaren arabera.

IV.- ONDORIOA

Arestian azaldutako guztirengatik, EUNEIZ Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate pribatu gisa ezagutzeko lege-proiektuaren aldeko txostena ematen du Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen Zuzendaritza honek.

AZTERLAN ETA ARAUBIDE JURIDIKOAREN ZUZENDARITZA
Maite Bellota Salán